INFORMAZIO OHARRA

# Eusko Ikaskuntzak eta Olaso Dorrea Fundazioak lankidetza sinatu dute

*Lehenengo ekimena Hedabideak eta Euskal nazioari buruzko lan programa bat abian jartzea izango da*

**Donostia, 2023ko apirilak 27**. Eusko Ikaskuntzako lehendakari Ana Urkizak eta Olaso Dorrea Fundazioko lehendakari Iratxe Esnaola Arribillagak lankidetza-hitzarmena sinatu dute gaur. Hitzarmen horrek bi erakundeak lotuko ditu datozen urteetan, eta proiektuak batera garatzeko aukera emango du.

Lehenengo ekimen gisa, akordioak **Hedabideak eta Euskal nazioa** programa abian jartzea ezartzen du. Nazioa batez ere komunikazio-espazio gisa ulertuta, proiektu honen inguruan Euskal Herriaren errealitatea erreferentziazko esparru bateratu gisa jorratzen duten hedabideei dei egingo zaie. Lurraldetasunari edo koronimoei (herrialdearen eta bere lurraldeen izenak) gaur egun ematen zaien tratamendua aztertzea izango du helburu, besteak beste, eguneroko komunikazioa hobetzeko. Bigarren fasean, emaitzak komunikabideekin partekatuko dira eta jarraitu beharreko urratsak elkarrekin finkatuko dira.

Gaur sinatutako hitzarmena datozen lau urteetan egongo da indarrean, eta epe berdinetan luzatu ahal izango da. Urtean behin, gutxienez, Eusko Ikaskuntzako eta Olaso Dorrea Fundazioko TmeLab laborategiko ordezkariek osatutako jarraipen batzordea bilduko da.

Informazio gehiago / Más información
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

NOTA INFORMATIVA

# Eusko Ikaskuntza y Olaso Dorrea Fundazioa sellan su colaboración

*Como primera realización, se pondrá en marcha un programa de trabajo sobre Medios de Comunicación y Nación Vasca*

**Donostia-San Sebastián, 27 de abril de 2023**. Ana Urkiza, Presidenta de Eusko Ikaskuntza, e Iratxe Esnaola Arribillaga, Presidenta de Olaso Dorrea Fundazioa, han firmado hoy el convenio de colaboración que vinculará a ambas instituciones durante los próximos años y que se orienta al desarrollo de proyectos conjuntos.

Como primera iniciativa, el acuerdo establece la puesta en marcha del programa **Medios de Comunicación y Nación Vasca**. Desde la comprensión de la nación fundamentalmente como un espacio comunicativo, en torno a este proyecto se convocará a aquellos medios que abordan la realidad de Euskal Herria como marco unificado de referencia. Tendrá como objetivo el análisis del tratamiento que actualmente se da a la territorialidad o a los corónimos (nombres del país y de sus territorios), entre otros aspectos, a fin de mejorar la comunicación diaria. En una segunda fase, se compartirán los resultados con los propios medios y se fijarán conjuntamente los pasos a seguir.

El convenio firmado hoy tendrá vigencia durante los próximos cuatro años, prorrogables en iguales periodos. Al menos una vez al año se reunirá la comisión de seguimiento compuesta por representantes de Eusko Ikaskuntza y del laboratorio TmeLab de Olaso Dorrea Fundazioa.

Informazio gehiago / Más información
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)